Residencias y estancias

Egoitzak eta egonaldiak



# CONVOCATORIA DE RESIDENCIA INTERNACIONAL
# NAZIOARTEKO EGOITZA DEIALDIA

## Complejo Cultural Los Pinos, México - Mexiko

Cierre convocatoria: 14 de abril de 2023

*Deialdiaren itxiera: 2023ko apirilaren 14a*

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO



Complejo Cultural Los Pinos

El Centro Huarte ofrece una residencia para producción, creación o investigación artística entre el 4 de septiembre y el 9 de octubre en **Complejo Cultural Los Pinos (CCLP), México, CDMX** para une artista nacide o residente en Navarra. BASES PÁGINA 3

Uharte Zentroak ekoizpen, sorkuntza edo ikerketa artistikorako egoitza bat eskaintzen du irailaren 4tik urriaren 9ra bitartean **Mexikoko Complejo Cultural Los Pinos (CCLP), Mexiko Hirian** Nafarroan jaio edo bizi den artista batentzat. OINARRIAK 6. ORRIALDEAN

# Bases de la Convocatoria de residencia en el Complejo Cultural Los Pinos (CCLP), México, CDMX

El Complejo Cultural Los Pinos es un espacio público que acerca expresiones culturales y artísticas en sus distintas disciplinas, a través de actividades gratuitas que se desarrollan en un ambiente de creación, reflexión e interpretación y en un diálogo constante con la comunidad, en el que se prioriza el ejercicio del derecho a la cultura bajo un esquema de colaboración con instituciones públicas, privadas y sociedad civil para su operación.

El Complejo Cultural Los Pinos ofrece la utilización gratuita de El Taller "nación gráfica" para realizar un proyecto de estampa gráfica con asistencia de un técnico especializado así como del alojamiento del artista invitado.

## A QUIÉN SE DIRIGE

A artistas de cualquier ámbito interesades en desarrollar un proceso de producción, creación y/o investigación.

Esta residencia está dirigida a personas residentes en Navarra.

## QUÉ SE OFRECE

- 1500 euros (impuestos y retenciones incluidas) en concepto de honorarios y producción. La mitad se concederá al comienzo de la residencia y la otra mitad una vez se presente la memoria final.
- 1200 euros (impuestos y retenciones incluidas) en concepto de producción.
- Desplazamiento desde Navarra a México CDMX.
- Espacio de trabajo en el taller de gráfica los pinos, incluidos los recursos técnicos y tecnológicos existentes.
- Acompañamiento en el desarrollo del proyecto por parte del artista visual Iosu Zapata.
- Alojamiento para el artista en el Complejo Cultural Los Pinos.

## FECHAS

**Cierre de la convocatoria:** 14 de abril de 2023.

La selección se comunicará en el plazo máximo de un mes a partir del cierre de la convocatoria.

Duración residencia: del 4 de septiembre al 9 de octubre de 2023.

Presentación de memoria y justificación económica:: 3 de noviembre de 2023.

## CRITERIOS DE VALORACIÓN

- > Calidad del proyecto.
- > Interés de la propuesta y la temática en relación con la propuesta de la convocatoria y del espacio que acoge la residencia.
- > Que el proyecto sea factible en cuanto a los recursos existentes.

## DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Para la inscripción hay que rellenar el formulario de la web del Centro Huarte: https://www.centrohuarte.es/eu/mexico-residencia-internacional-nazioarteko-egoitza-2

En él se debe adjuntar un único documento en formato PDF (nombre_apellido.pdf, máx. 5mb) que incluya:

- > Resumen o idea inicial del proyecto (máximo 500 palabras).
- > Líneas de investigación sobre las que se enfoca el proyecto (máximo 1 página).
- > Propuesta a desarrollar en la residencia (máximo 2 páginas).
- > Imágenes de trabajos previos y/o relacionados con la propuesta para facilitar la comprensión del proyecto (en caso de vídeos poner vínculos).
- > Cronograma o calendario de trabajo (máximo 1 página).
- > Biografía o currículum de la persona participante.

*** IMPORTANTE: No se valorarán los proyectos que no presenten toda la documentación solicitada.**

Las dudas se resolverán en la siguiente dirección de correo electrónico: coordinacion@centrohuarte.es indicando en el asunto "Convocatoria Complejo Cultural Los Pinos México Deialdia". El plazo de dudas y preguntas relativas a la convocatoria finalizará en los cinco días previos al cierre de la misma.

## CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica reconocer la aceptación de las presentes bases y de los siguientes compromisos:

- > La percepción de estas ayudas no es incompatible con otras ayudas para el mismo proyecto otorgadas por otros organismos, siempre que los gastos que subvencionen no sean aquellos asumidos por el Centro Huarte.
- > Durante el periodo de la residencia, le residente deberá establecer su espacio de trabajo en el Complejo Cultural Los Pinos.
- > Materializar el proyecto de la forma en que se ha expuesto en el dossier. Cualquier cambio sustancial deberá informarse al Complejo Cultural Los Pinos.

- Al comienzo del período de residencia se realizará una presentación del proceso de trabajo de le artista que será incluida en la programación del Complejo Cultural Los Pinos. Al finalizar la residencia, el proceso se mostrará allí y a la vuelta en el Centro Huarte.
- Los trabajos seleccionados serán propiedad de le autore. El Centro Huarte y Complejo Cultural Los Pinos podrán reproducir y divulgar mediante publicaciones on-line o en formato papel la totalidad o parte del programa, siempre citando las respectivas autorías. El Centro Huarte y el Complejo Cultural Los Pinos archivarán toda la documentación que se genere a partir de esta convocatoria.
- En el caso de que el proyecto conlleve la edición de publicaciones, página web, vídeos, etc. se deberá reseñar que el proyecto ha recibido la ayuda del Centro Huarte con la frase: "Este proyecto ha recibido la Ayuda de Residencias Internacionales del Centro Huarte - Proiektu honek Uharte Zentroaren Nazioarteko Egoitzen Laguntza jaso du." y el logo del Centro y el del Complejo Cultural Los Pinos, y comunicarlo previamente.
- El hecho de mantener comportamientos racistas, homófobos, tránsfobos y/o machistas; y en general cualquier otra conducta que pueda vulnerar la dignidad humana, serán motivos de inmediata cancelación de la residencia.
- Al finalizar se deberá entregar una memoria que contenga el desarrollo del proyecto (incluyendo imágenes o vídeos). así como una justificación de los gastos realizados (con las facturas y justificantes de pagos y una explicación breve de los mismos).
  *IMPORTANTE: La no entrega de ambos documentos en la fecha indicada implicará la pérdida de la ayuda.



# Nazioarteko egoitza Mexiko Hiriko Complejo Cultural Los Pinos (CCLP) gunean garatzeko deilaldiaren oinarriak

Complejo Cultural Los Pinos erremu publiko bat da, eta kultura- eta arte-adierazpenak hurbiltzen ditu bere diziplina anitzetan doako jardueren bidez. Jarduera horiek sorkuntza-, gogoeta- eta interpretazio-giroan eta komunitatearekin etengabeko elkarrizketan garatzen dira, eta lehentasuna ematen zaio kulturarako eskubidea gauzatzeari, erakunde publikoekin, pribatuekin eta gizarte zibilarekin lankidetzan jarduteko eskemari jarraituz.

Complejo Cultural Los Pinos-ek "El Taller: nación gráfica-ren" doako erabilera eskaintzen du, teknikari espezializatu baten laguntzaz estanpa grafikoko proiektu bat garatzeko. Artista gonbidatuaren ostatuarekin ere laguntzen du.

## NORI ZUZENDUA DAGO

Deialdiaren espazioan oinarritutako ekoizpen-, sorkuntza- eta/edo ikerketa-prozesu bat garatzeko interesa duten edozein arlotako artista nafarrei.

Egoitza hau Nafarroan bizi diren pertsonei zuzenduta dago.

## ZER ESKAINTZEN DA

- 1500 euro (zergak eta atxikipenak barne) ordainsari eta ekoizpen gisa. Erdia egoitzaren hasieran emango da, eta beste erdia memoria eta justifikazio ekonomikoa aurkeztu ondoren.
- 1200 euro (zergak eta atxikipenak barne) ekoizpenerako.
- Nafarroatik Mexiko Hirirako joan-etorria.
- Complejo Cultural Los Pinos-ek grafika-tailerreko lan-espazioa, dauden baliabide teknikoak eta teknologikoak barne.
- Iosu Zapata artista bisualaren sostengua proiektua garapenean.
- Artistarentzako ostatua Complejo Cultural Los Pinos gunean.

## DATAK

**Deialdiaren amaiera:** 2023ko apirilaren 14an.

Hautaketa deialdia itxi eta gehienez ere hilabeteko epean jakinaraziko da.

Egoitza-iraupena: 2023ko irailaren 4tik urriaren 9ra.

Memoriaren eta justifikazio ekonomikoaren aurkezpena: 2023ko azaroaren 3a.

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

> Proiektuaren kalitatea.

> Proposamenaren eta gaiaren interesa deialdiaren proposamenari eta egoitza hartzen duen guneari dagokienez.

> Proiektua egingarria izatea dauden baliabideei dagokienez.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko Uharte Zentroaren web orriko formularioa bete behar da: https://www.centrohuarte.es/eu/mexico-residencia-internacional-nazioarteko-egoitza-2

Dokumentu bakarra erantsi behar da PDF formatuan (izena_abizena.pdf, gehienez. 5Mb) honako hauek barne hartzen dituena:

> Proiektuaren hasierako laburpena edo ideia (500 hitz gehienez).

> Proiektuaren xede diren ikerketa-ildoak (orrialde bat gehienez).

> Egoitzan garatu beharreko proposamena (bi orrialde gehienez).

> Proiektuaren ulermena errazteko aurretiko eta/edo proposamenarekin lotutako lanen irudiak (bideoen kasuan, jarri loturak).

> Kronograma edo lan-egutegia (orrialde bat gehienez).

> Parte-hartzailearen biografia edo curriculuma.

* GARRANTZITSUA: eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak ez dira baloratuko.

Zalantzak helbide elektroniko honetan argituko dira: coordinacion@centrohuarte.es eta gaian “Complejo Cultural Los Pinos Mexiko deialdia” adieraziko da. Deialdiari buruzko zalantzak eta galderak egiteko epea deialdia itxi baino bost egun lehenago amaituko da.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak berekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzen direla aitortzea:

> Laguntza hauek jasotzea ez da bateraezina proiektu bererako beste erakunde batzuek emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak Uharte Zentroak bere gain hartzen ez baditu.

> Egoitzak irauten duen bitartean, egoiliarrak bere lanerako gunea l ‘Aquila Realen ezarri beharko du.

- Proiektua dosierrean azaldutako moduan gauzatu behar da. Funtsezko aldaketarik baldin bada, Complejo Cultural Los Pinos-i jakinarazi beharko zaio.
- Egoitza-aldiaren hasieran, Complejo Cultural Los Pinos-en programazioan sartzen den artistaren lanaren aurkezpena egingo da. Amaitzean, han bertan eta itzuleran Uharte Zentroan aurkeztuko da prozesua.
- Aukeratutako lanak egilearen edo egileen jabetzakoak izango dira. Uharte Zentroak eta Complejo Cultural Los Pinos-ek on line edo paperezko argitalpenen bidez erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du programa osoa edo zati bat, betiere kasuan kasuko egiletzak aipatuta. Uharte Zentroak eta Complejo Cultural Los Pinos-ek deialdi honetatik aurrera sortzen den dokumentazio guztia artxibatuko du.
- Proiektuak argitalpenak, web orria, bideoak eta abar argitaratzea badakar, proiektuak Uharte Zentroaren laguntza jaso duela adierazi beharko da, esaldi honekin: “Proiektu honek Uharte Zentroaren Nazioarteko Egoitzen Laguntza jaso du.” gainera Zentroaren eta Complejo Cultural Los Pinos-en logoak txertatu beharko dira eta Zentroa jakinaren gainean egon beharko du aldez aurreti.
- Amaitzean, proiektuaren garapena jasotzen duen memoria bat entregatu beharko da (irudiak edo bideoak barne), bai eta egindako gastuen justifikazio bat ere (ordainketen faktura eta egiaztagiriekin eta horien azalpen labur batekin). * GARRANTZITSUA: bi dokumentuak adierazitako datan ez entregatzeak laguntza hori galtzea ekarriko du*





Calvario, 2. 31620
Uharte Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra